# XVI. Sagar Uzta ospatzeko Astigarragako Kizki Egunean parte hartu dute goizuetarrek

**Ttipi-Ttapa** 2016-09-26 08:37 GIZARTEA LEITZALDEA GOIZUETA

**Marmitako lehiaketan ere Goizuetako taldea suertatu zen garaile**

Sagar Uztak hamaseigarren edizioa bete du aurten dolaretako lanen hasiera ospatzeko eta sagarraren eta sagardoaren kulturan oinarrituriko jarduera ugari izan dira Astigarragan igandean.



*Goizuetako lagun talde handia hurbildu zen Astigarragara XVI. Sagar Uzta egunean parte hartzeko. Argazkia: Felix Loiarte* | *Ikusi handiago* | *Argazki originala*

Urtero bezala, Foruen Plazan sagarraren azoka, sagardo dastaketa eta 2016 uztako lehen muztioaren elaborazioa izan dira, dolarean bertan muztioaren usadiozko elaborazio prozesua erakutsiz: kirikoketa, pisoiekin sagarra jotzea, txalaparta eta ekoiztutako muztioaren dastaketa topa! eginez. Harrera bikaina izan dute XVI. Sagar Uzta 2016 ospatzeko antolaturiko jarduerek, besteak beste: familientzako Euskadiko Museo Enogastronomikoetako sagar tarta tailerrak (25 parte-hartzaile), sagardo dastaketak (12 sagardogile), IX. Sagar Uzta argazki rallyak (20 parte-hartzaile)…. Azpimarratzekoa izan da VIII. Kizki Eguna, 527 kizki-lagun elkartzea lortu baitu une berean kizkiarekin sagarrak jasotzen, orain arte lortutako marka onena.

Bestalde, herrien arteko Marmitako Lehiaketa ospatu da eta beren sukaldaritza dohaiak erakutsi ondotik, Goizueta suertatu da irabazle.

Goizuetarrak Astigarragako kizki egunean (10 argazki)

## Leitzaldea/ Gizartea

- XVI. Sagar Uzta ospatzeko Astigarragako Kizki Egunean parte hartu dute goizuetarrek
- Goizuetarrak Astigarragako kizki egunean
- Euskal Jaia Goizuetako Iskibi kanpinean 2016
- Aresoko pestak. Kuadrilla eguneko jokoak
- Aresoko festen laburpena
- Ekitaldiz gainezka datoz Leitzako Santiburtzio pestak
- Nafarroako eta Gipuzkoako osasun-langileek goizuetar eta aranoarren historia klinikoak partekatuko dituzte
- «Duela bi urte pentsaezina zen guretzat honaino iristea»
- Leitzako festak direla eta Alde Zaharreko edukiontziak tokiz aldatuko dituzte
- Festetan entzun nahi diren abestiak aukeratzeko lehiaketa deitu dute Goizuetan
- Karmen bezperako herri afaria giro ederrean joan

Zabaldu artikulua:

## Erantzun

Erantzuteko, izena emanda egon behar duzu. **Sartu komunitatera!**

Erabiltzaile izena

Pasahitza

Sartu »» Alta eman edo pasahitza berreskuratu

Twitter-ekin Facebook-ekin

zen Goizuetan

- Karmen bezpera Goizuetan 2016 (Argazkiak: Felix Loiarte)
- Umore Ona elkartearen atalen Eguna ospatu dute igandean Goizuetan
- Umore elkartearen atalen eguna
- Plazaola gozatzeko 17 bisita gidatu eta jarduera turistiko proposatu dituzte uda honetarako

2017ko EGUTEGIAK behar dituzu?

2017ko EGUTEGIAK

ERRAN.EUS
Koskontako bidea, 07 - 1 | 31770 LESAKA (Nafarroa)
Tel: 948 63 54 58 | Faxa: 948 63 54 57
IDATZI EMAILA

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

mecna

ERRAN.EUS-eko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratzeko libre zara, beti ere, gure egiletzakoak direla aitortzen baldin baduzu eta baldintza berdinetan egiten baduzu.

Codesyntaxek garatua